

PRENTSA OHARRA

Doitasun-teknologia aeronautikako produkzio-sistema berrietarako

- *Tekniker parte hartzen ari da Aernnovak gidatutako proiektu batean, bere roboten doitasuna hobetzeko hainbat muntaketa-eragiketatan.*
- *Zentroak, eredu matematikoetatik abiatuta, ekoizpen-prozesuan kalibrazioa integratuko duen soluzio kustomizatu bat garatuko du.*
- *Teknologia horrek eraginkortasuna areagotzen, baliabideak optimizatzen eta kostuak murrizten lagunduko du.*

[Eibar, 2023ko maiatzaren 30a] – Aeronautika-industriaren fabrikazio-prozesuen automatizazioa bultzatzeak lehiakortasuna eta produkzio-ahalmenak handitzen laguntzen du baina, aldi berean, ekoizpen-sistema berrien prestazioak hobetuko dituzten soluzioak eskatzen ditu.

Testuinguru horretan, [Tekniker](#) zentro teknologikoak [Aernnova](#) enpresarako proiektu batean parte hartzen du, hain zuzen ere, Berantevillako (Araba) lantegian aireontziak muntatzeko hainbat eragiketatan erabiltzen dituen roboten doitasuna hobetuko duen soluzio bat diseinatzen.

Doitasun- eta metrologia-ingeniaritzan espezializatutako Teknikerreko ikerketa-taldeak aeronautika konpainiak gidatutako ekimen horretan laguntzen du bere ezagutzarekin eta esperientziarekin.

Teknikerrek "Aernnovaren roboten karakterizaziorako eta zulaketa edo mihiztatze prozesuetan denbora errealean aplikatzeko soluzio kustomizatu bat garatuko du", Unai Mutilba proiektuko ikertzaile arduradunak azaldu duenez. Horretarako, taldeak "roboten funtzionamendua irudikatzen duten eredu matematikoak" egingo ditu.

"Implementazioak produkzio-bitarteko horien doitasuna hobetuko du, produktibitatea handituz eta produkzio-kostuak murriztuz", nabarmendu du Teknikerreko ikertzaileak.

Zentroak eredu matematiko bat garatuko du, roboten funtzionamendua, konposizio geometrikoa eta zurruntasuna irudikatu eta iragarriko dituena, sistemaren doitasuna hobetu ahal izateko lan-posizio desberdinetan. Taldeak eredu hori ezarriko du roboten kontrol-sisteman, haien doitasuna hobetzeko.

Roboten indargunea errepikagarritasuna da, baina ez doitasuna. Horregatik, metrologia-teknikak aplikatu behar dira bitarteko horietan.

Teknologia horietan egiten den ikerketari esker, Aernnovak eta gainerako aeronautika-konpainiek "produktu errentagarriagoak eta iraunkorragoak eskaini, muntaketa-lerroen eraginkortasuna handitu, entrega-epeak murriztu, ekoizpenaren kalitatea handitu, baliabideen kontsumoa optimizatu eta fabrikazio-kostuak asko aurreztu ahal izango dituzte, aeronautika-sektoreak eskatzen duen eskariari erantzunez", azaldu du Teknikerreko ikertzaileak.

Aernnova buru duen ekimena 2025ean amaituko da, eta aeronautika sektoreko lau enpresa txiki eta ertain ari dira parte hartzen. Teknikerren laguntza jasotzen dute, eragile teknologiko eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sareko kide gisa. Proiektuak Espainiako Gobernu Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren laguntza du, CDTIren PTA2022 Programa Teknologiko Aeronautikoaren barruan.

Aernnovari buruz

Aernnovak 30 urte baino gehiagoko ibilbidea du aeronautika sektorean, eta liderra da aeroegituren eta aireontzien osagaien diseinuan eta fabrikazioan, esaterako, industria aeroespazialeko OEM nagusientzako hegal, egonkortzaile eta fuselajeetan. Konpainiak 30 aireontzi-modelo baino gehiagotarako eta bezero ugarirentzako diseinatu eta/edo fabrikatzen ditu aeroegiturak.

Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Materialen eta Gainazalen ingeniartzan, eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari

hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago izateko:

GUK ▶ Unai Macias

unai@guk.eus | Tel. 690 212 067